

# Artea erakusteko beste modu bat

Urmara espazio esperimentalaren osatzen ari dira Alkizan; besteak beste, Koldobika Jauregiren eskulturak ikusi daitezke

Proiektu irekia da, eta erakusleku bihurtu den lursailean, bertako basoa da nagusi

**Imanol Garcia Landa** Alkiza

Artearen espazio esperimental bat sortu dute Alkizan, Urmara izenekoa. Bultzatzaileetako bat Koldobika Jauregi eskultore alkizarra da. «Pieza handiak egiten nituenean, harrizkoak eta, horiek bukatu ondoren leku bat behar nuen uzteko, eta etxe ondoan hasi nintzen uzten, erakusketa batera edo bestera eramaten nituen bitartean», dio Jauregik. Tarteka, norbait joaten zen pieza horiek ikustera, eta pixkana zerbait gehiago egiteko ideia gauzatu joan da. Alkizatik Asteasura doan bidearen ondoan Jauregik duen lursail batean osatu dute espazioa.

Azkeneko urteetan lana egiteko modua aldatu dela esan du eskultoreak. «Gauza asko aldatu dira bai gizartean, eta baita gure munduan ere», dio Jauregik. «Ikusten genuen gure lanak beste modu batera erakutsi behar zirela, ikusita museoak nola dauden. Bestalde, beharra genuen beste proiektu batzuk egiteko».

Hain justu, azkenaldian Alkizan hainbat proiektu etnografiko egin dira. «Zenbait proiektu etnografiko egiten hasi ginen, patrimonio kulturala biltzeko asmoz. Herritarren artean parte hartzea bultzatzen hasi eta hainbat ekimen egin ditugu: txerri-hilketa, sagardoa, ikatza, garo meta... eta horietan eskola ere inplikatu egin da», azaldu du Jauregik. Gai horietan ere bereziki interesa duela esan du Jauregik. «Taldea bat egin dugu eta hori lantzen ari gara».

Horrez gain, naturan ere interesa duela azaldu du eskultoreak. Ernio-Gazume espazio natural berezia eta kontserbatu beharrekoa izendatu dute, eta zatirik handiena Alkizari dagokio. Ideia eta interes guztiak baturik, gune bat sortzeko ideiak indarra hartu

zuen. «Garaiak agian ez dira onenak proiektuak abian jartzeko, baina bai esperimentatzeko», esan du Jauregik.

Urmara pixkana sortuz joan dela dio Jauregik. Jauregiren harrizko eskulturrez gain, beste proiektu batek ere badu bere lekua, Erroetatik Arteraino izenekoa. Jauregi berak, Juan Barberekin batera, papera egiteko balio duten landareak landatu dituzte Urmaran. «Paperaren prozesu guztia erakutsi nahi genuen: hazia hartu, landatu, landarea atera, azala kendu eta papera egin», esan du Jauregik. Lursail horretan ere auditorio naturala egin dute eta hiru karobi daude, «horietako bat, garai batekoa, frantsesa deitzen zaiona. Berreskuratzeke daude», azaldu du Jauregik. Erakusketak egiteko espazio bat ere badu, eta horretan Iñaki Epelde margolariaren laguntza izan du.

«Proiektua ez dago itxia», dio Jauregik. Urmara elkarteak sortu dute guneari forma emateko, eta izan dituzte beste zenbait elkarterekin harremanak. «Ez dugu espazio masibo bat egin nahi. Ez du aparkalekurik ondoan. Kotxea Asteasuko poligonoan utzi daiteke eta handik oinez igo. Leku lasai bat izatea nahi dugu, bertara joateko interesa duenarentzat». Urmaran, batez ere, basoa nagusi dela dio Jauregik: «Ez dugu hormigoirik sartu».

Ez dute inaugurazio ekitaldian pentsatu. «Ekitaldiak hasi dira, eta pixkana osatzen joango da», dio Jauregik. Ez dute sarrerarik kobratzen; hala ere, ez dago ordutegi finkorik. «Interesa duenak [www.urmara.com](http://www.urmara.com) helbidean jaso dezake informazioa, eta bertatik gurekin harremanetan jarri», azaldu du Jauregik. «Gauzak beste modu batera egin daitezkeela erakutsi nahi dugu».




Koldobika Jauregiren eskulturak ikusi daitezke Urmaran. E.MAIZ

## Irudia ▸ Alkiza



## URMARARA BISITA, NATURALDIAN

Naturaldiaren barruan, Alkizara bisita egin zuten hainbat lagunek larunbatean. Plazan elkartu ziren, eta lehenik eta behin udal-etxean jarritako informazio panelak ikusi zituzten. Bertan izan zen, besteak beste, jardunaldietan parte hartu duen Joaquin Araujo idazle eta naturalista. Hainbat arloetako jendea elkartu zen, Alkizak eskaintzen duena ezagutu asmoz. Bukatzeko, Urmara gune esperimentalaren bisitatu zuten. Artearen eta naturaren arteko harremanari begiratzen dioten ekimenak biltzen dira. Naturaldiaren azken ekitaldia izan da eskualdean. J.SAIZAR



Paperaren prozesua erakusten duen proiektua bere lekua du Urmaran. E.M.